

Herenamamak

Sekretu bat aitortu behar dizuet: nire bigarren abizena Casete da. Bai, Casete, zintak bezalaxe, baina “s” eta “t” bakar batekin. Lagun eta senide askok abizen bitxi hori armairutik ateratzera animatu naute, baina alferrik da. Oraindik ere nire baitan iseken beldur den nerabearen erreguak entzun ditzaket. Hori dela eta, kostatuko zaizue nire bigarren abizenaren arrasto publikoren bat topatzea.

2012an salbuespen bat egin nuen, “cassete” zinten sorkuntzaren 50. urteurrena ospatzen zela jakin nuenean. Garai horretako nire blogean artikulu bat idatzi nuen eta Radio Euskadiko kazetari batek irakurri eta elkarrizketa egin zidan. Nire aitite, Isidro Casete, harro-harro sentitu zen.

Zintek nire bizitzan izandako garrantziak nahikoa izan behar luke abizena aldarrikatzeko. Kazetari –cassettari– bokazioa neukanaren lehenengo froga, 6 urterekin nire amamaren etxean radiocassetearekin grabatutako irratsaio bat da. 8 urterekin Bizkaia Irratian lehiaketa bat irabazi nuen eta oparitzen zuten radiocassettean grabatzen nituen Euskadi Gazteako nire abesti kuttunak. Alabaina, Boirora uda-pasan nengoenean soilik sentitzen nintzen Casete abizenaz harro. Casete familia oso gustuko nuen: zaratsuak, parranda zaleak, lirainak, herrian oso ezagunak ziren.

Aititek beti kontatzen du bere aitak, Ventura Casete zapatari galiziarrak, ironiaz erantzun ziola zinten jaiotzari: “Hara! Orain merke saltzen gaituzte!”. Ordura arte, kutsu frantseseko abizen arraro bat baino ez zen, akitania-rra, izeko baten ikerketaren arabera. Egun abizen “vintage” bihurtu da. Nire lehengusu gazteenak ez du eskolan iseka gehiegirik pairatu; askoz jota, mp3 formatura migratu beharko duela. Espainiako Estatistika Institutuaren da-



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Txikitan nire abizenen zerrenda ikasten ari nintzela –abizen euskaldunen arrastorik ez; “Casete, hori bai abizen egokia maketa batentzat!”, esan zidan lagun batek behin– jakin nuen birraititeren izena Ventura Casete Casete zela. Pletina bikoitza! Bere ama ezkongabea izan zen. Betidanik imajinatu nuen gizon lotsagaberen batek haurdun utzi zuela eta ardura ez zuela hartu

tuen arabera, soilik 28 lagunok daramagu abizen hori. Zintak bezala, guk ere iraugitze-data daukagu.

Tira, cassetteak bezala “enroilatu” naiz, baina azalpen hau ematea beharrezkoa nuen hurrengo istorioa kontatu ahal izateko. Txikitan nire abizenen zerrenda ikasten ari nintzela –abizen euskaldunen arrastorik ez; “Casete, hori bai abizen egokia maketa batentzat!”, esan zidan lagun batek behin– jakin nuen birraititeren izena Ventura Casete Casete zela. Pletina bikoitza! Bere ama ezkongabea izan zen. Betidanik imajinatu nuen gizon lotsagaberen batek haurdun utzi zuela eta ardura ez zuela hartu. Baina orain dela gutxi nire aititek egiatzko bertsioa kontatu zidan: bere amamak –hau da, nire herenamamak– ez zuen emazte izateko bokaziorik; ezkondu ordez, lau ferianterekin lau seme-alaba izan zituen. Nire aititek bihurrikeriaren bat egiten zuenean eta bere amamak “zer egin duzu, Isidro?” esanez errieta egiten zionean, Isidro maltzurki erantzuten zion: “Eta zuk, amama, zuk zer egin duzu?”.

Gabonetan gogora ekarri nuenean, aititek zera argitu zidan: pasadizo horren protagonista ez zen Ventura Casete Caseteren ama, bere amaldeko amama baizik. Ea korapilo honekin galtzen ez zarenen: Isidroren bi amamak izan ziren ezkongabeak! Eta biak erabaki propioz! Edo, gutxienez, halaxe gogoratzen du nire aititek.

Nolabait, familiako moral arauen urraketen historia nire amarekin hasten zela uste nuen; 1980ko hamarkadan ezkontza zibila ospatu eta ondoren dibortziatu baitzen. Amama, birramama eta herenamamen bizitzak imajinatzen nituenean, ez nuen errebeldia izpirik susmatzen. Aurreiritzi hori apurtu izana ere izan daiteke nire abizen guztiak, nire arbaso guztiak, aldarrikatzeko arrazoi eder bat. ■